

PROBA ESPEZIFIKOA

2017ko PROBA

GEOGRAFIA

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2017ko MAIATZA

GEOGRAFIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2017

GEOGRAFÍA

1.- Egin ezazu irudi honi buruzko iruzkin bat (2,5 puntu)



2.- Hauta eta gara ezazu bi gai hauetako bat (3 puntu)


- A. Irudikapen geografikoa.
- B. Garapen jasangarriaren printzipioak.

**3.- Defini itzazu kontzeptu hauek: (hautatu 3)
(Guztira, 1,5 puntu)**

- Labarra
- Bizi-estatistikak
- Nekazaritza mistoa
- Atmosferaren egonkortasuna
- Garriga
- Zirku-glaziarra



4.- Egin klimograma honi buruzko iruzkin bat (3 puntu)





EBAZPENA GEOGRAFIA (2017ko Maiatza)

• **KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK**

Galdera bakoitzaren ondoren, dagokion puntuazioa ageri da. Guztira, 10 puntu dira.

• **EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

Irizpide orokorra

Erantzunen zuzentasuna, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, egituratzea (batez ere, testu-iruzkinean), lexikoaren kalitatea eta hizkuntzaren zuzentasuna baloratuko dira.

Irizpide espezifikoak

- Zehaztasunez, koherentziaz eta era ordenatu batean erantzuten die galderei.
- Zuzen interpretatzen ditu mapak, grafikoak eta estatistika-taulak.
- Zuzen iruzkintzen ditu, alderdi nabarmen guztietan, emandako testua.

GALDEKIZUNEN ETA CURRÍCULUMAREN ARTEKO LOTURA

GALDEKIZUNA	EDUKI-BLOKEAK
1	1. blokea
2	1-4 blokeak
3	1-5 blokeak
4	1. blokea

• **EBAZPEN ORIENTAGARRIA**

1.- Lur gaineko meatzaritza-ustiategi bat da.

Lur gaineko meatzaritza deritzo lurraren gainazaleko baliabide mineralak, ez lur azpikoak, eskuratzera bideratuta dagoelako. Mineralak erauzteko eta berreskuratzeke, lurzoruko eta zorupeko lur kantitate handiak mugitzen dira, eta, gero, prozesatu egiten dira, substantziak aplikatuz, mineralak erauzteko. Adibidez, sodio zianuroa urrea lortzeko, eta azido sulfurikoa kobrea eta uranioa lortzeko.

Teknika horren bidez, 0,01 ontza urre berreskuratzen dira lurzoru-tona bakoitzeko, baina, teknikaren ondorioz, desagertu egiten dira mendiak eta ekosistemak, kutsatu egiten dira ura –gainazalekoa eta freatikoa–, airea eta



lurzorua, eta kalte egiten zaie animaliei eta landareei erabilitako substantzia toxikoen ondorioz.

Erauzte-kostua txikia da. Mineral baliotsuen metakinak luraren gainazalaren azpian daudenean eta gainkarga (ganean dagoen arroka edo lurra) nahiko mehea denean erabiltzen dira lur gaineko meategiak. Halakoetan, ez da behar tunel-sare zabal bat sortzea, ezta egiturarako euskarri garestirik ere. Bestalde, kamioi handiak sartu egin daitezke lur gaineko meategi batean; hala, erauzte-lekutik prozesatze-lekurako trantsizioa eraginkorragoa da.

2.

A. Irudikapen geografikoa.

Ezagutzen, okupatzen eta garatzeko erabiltzen dugun espazioa irudikatzeko, zenbait tresna erabil daitezke. Askotarikoak daude: sinpleenetatik, hala nola krokis bat, geografia-informazioko sistemetaraino.

Mapa inguratzen gaituen munduaren modelo edo irudikapen sinplifikatu bat da, mundua aztertze eta hobeto ulertze balio duena.

Mapak egiteaz arduratzen den diziplina, kartografia, ez da modeloak erabiltzen duen bakarra; beste zientzia batzuek ere, hala nola fisika, matematika edo ekonomia, beren modeloak dituzte.

Edozein mapa egiteko, sinplifikatu egin behar da errealitatea. Hiru urratsetan egiten da hori: lehenengo, maparako interesgarriena den lurralde-informazioa jaso eta hautatu behar da, eta aukeratu behar da zer eskalatan irudikatu nahi den espazioa (askotan, paperean edo web-orrian dagoen tokiaren arabera egiten da), bai eta zer proiektzio kartografiko erabiliko den ere. Gero, irudikatu beharreko elementu espazialak sailkatu behar dira, konplexutasuna murriztearren, mapa ulergarria izan dadin. Azkenik, orokortze edo sinplifikazio bat lortzen da, irudikatuta ageriko den informazioa gutxiturik, irakurterraza izan dadin. Modelo kartografikoa egindakoan, irakurleak mapa interpretatu eta aztertu ahal izango du, eta, hala, errealitatearen irudi fidagarri bat lortu.

Errealitatea modu fidagarrian irudikatu ahal izateko, elementu horiek irudikatzen dituzten sinbolo batzuk aukeratu behar dira, irakurleak interpretatu ahal izango dituenak, sinbolo horien bidez sartzen baita informazioa mapan.

Eskalaren bidez, elementuen edo sinboloen arteko distantziak neur daitezke; koordenatu espazialen sistemen bidez, elementu horiek lurrazalean zer posizio duten jakin daiteke.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2017ko MAIATZA

GEOGRAFIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2017

GEOGRAFÍA

Sinboloak puntu, lerro edo poligonoak izan daitezke. Elementuak irudikatzeko modua, hein handi batean, maparen eskalak eta xedeak erabakitzen dute.

Proiektzio kartografiko edo geografikoa:

Proiektzio bat sistema ordenatu bat da, meridiano eta paraleloen sarea Lurraren gainazal kurbatutik gainazal lau batera lekualdatzen duena. Sare gisa irudikatzen da. Proiektzioak, ona izango bada, bi ezaugarri izan behar ditu: azalera kontserbatu behar ditu, eta angeluak kontserbatu behar ditu. Zoritxarrez, hori ezinezkoa da, zirkuluaren kuadratura aurkitzearen parekoa litzateke; beraz, tarteko irtenbideak aurkitu behar dira. Horregatik, zenbait proiektzio mota asmatu dira.

B. Garapen jasangarriaren printzipioak.

1980ko hamarkadaren erdian, garapen jasangarriaren kontzeptua jende orok nahi lukeen gizarte-helburu gisa orokortu zen. Badirudi garapen jasangarriak adostasun unibertsala lortu duela.

1. Zero itzulezintasunaren printzipioa: zerora murriztea esku-hartze metagarriak eta kalte konponezinak.
2. Baliabide jasangarriaren printzipioa: baliabide berriztagarrien biltze-tasek baliabide horien birsortze-tasen berdinak izan behar dute.
3. Huste jasangarriaren printzipioa: natura-baliabide ez-berriztagarrien ustiaketa ia jasangarria da haien huste-tasa ordezkoko berriztagarrien sortze-tasaren berdina denean.
4. Emisio jasangarrien printzipioa: hondakinen emisio-tasek hondakin horiek jasotzen dituzten ekosistemen berezko asimilazio-ahalmenen berdinak izan behar dute (printzipio horrek berekin dakar hondakin ez-biodegradagarrien emisioa zero izatea).
5. Teknologien hautaketa jasangarriaren printzipioa: baliabideen produktibitatea (baliabide-unitateko erauzten den bolumen baliaduna) handitzen duten teknologiei eman behar zaie lehentasuna erauzitako baliabideen kantitatea handitzen duten teknologien aldean (eraginkortasuna vs hazkundea).
6. Zuhurtasun-printzipioa: aurrean ditugun arriskuen tamaina ikusirik, beharrezkoa da zaintze-jarrera aurre-hartzailea izatea ondorio katastrofikoak ekar litzaketen bideak identifikatzeko eta alde zuzenak aurretik



baztertzeko, baita ondorio horien probabilitatea itxuraz txikia denean eta ordezeko bideak zailagoak edo garestiak direnean ere.

3.-

- Labarra

Kostako malkarra, itsas higadurak modelatua. Toki hauetan sortzen dira, batez ere: eremu menditsu edo bolkanikoen kostetan, mendigune zaharretan eta arroka gogorren azaleratzeetan, arro sedimentarioetan. Askotarikoak dira, arroka motaren, haien egitura geologikoaren eta modelatu-formaren arabera. Malda handia dute beti, eta altuera askotarikoa izan daiteke: metro gutxi batzuk eta ehunka metro bitartean. Haustura-lerro nabarmen bat dute oinarrian, eta, haren gainean, arroka-plataforma bat.

- Bizi-estatistikak

Populazio batean erregistratutako jaiotza, heriotza, fetu-heriotza, ezkontza eta dibortzioei dagokie.

- Nekazaritza mistoa

Laborantza eta abeltzaintza konbinatzen dituen nekazaritza-sistema. Bi jarduerak elkaturik, laboreak abereentzako belardiekin edo bazka-landareekin txandakatuz, bi ekonomia osagarriak mantentzeaz gainera, animaliek modu naturalean ongarrizten dute lurzorua, eta, hala, labore batzuei eta besteei elkartutako belar txarrak desagertzen dira. Eskualde hezeetako berezko sistema da hori, baina eskualde lehorragoetan ere aurkitzen da, ureztaketa-teknikak erabiltzen dituztenetan.

- Atmosferaren egonkortasuna

Airea egonkortzea eta eguraldi eguzkitsu eta prezipitaziorik gabea izatea dakarten atmosfera-kondizioak (zelula antiziklonikoak izatea, gradiente estatiko termiko murriztua, ur-masak urruti egotea, etab.).

- Garriga

Basoberako landaredia, klima mediterraneoko lurzoru karetsu edo tuparritsuetara egokitua. Kareharrizko lurzoruetan ezarritako ingurune mediterraneotako berezko landaredia da. Formazio beheera da, non zuhaitzek eta zuhaixkek zoruaren parte bat biluzik uzten baitute. Badirudi formazio honen jatorria baso mediterraneotan usu gertatzen diren baso-suteen ondorengo basoberritzeak direla.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2017ko MAIATZA

GEOGRAFIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2017

GEOGRAFÍA

- Zirku-glaziarra

Mendiko glaziar lokala, elur iraunkorren muga gutxi gainditzen duten mendialdeetan kokatua egoteagatik zirku glaziarra besterik ez duena.

4.-

Prezipitazioen analisiari dagokionez, aurkitzen dugu urriak direla eta banaketa irregularra dutela (370 mm guztira, bi hilabete idor baino gehiago). Prezipitazio esanguratsuko hilabete kopurua sei da; maximoa neguan da, eta minimoa udan.

Urteko batez besteko tenperatura altua da (18,6 °C), 17 °C baino altuagoa. Anplitude termikoa ez da handia: 12,2 °C.

Udako tenperatura beroa da, uztailean, abuztuan eta irailean 22 °C-tik gorakoa baita; neguan, berriz, tenperaturak epelak dira; hilabeterik hotzenean (urtarrila, 13,3 °C), tenperatura ez da 10 °C-tik jaisten.

Ezaugarri horiek adierazten dute klima mediterraneoan izan litekeela. Itsasaldeko klima mediterraneoan izan liteke. Espainian, itsasaldeko klima mediterraneoak Iberiar penintsulako kostan mediterraneoak eta hegoaldeko kostan atlantikoak, Balearrak, Ceuta eta Melilla hartzen ditu. Prezipitazioak txikiak edo ertainak dira (urteko 800 eta 300 mm artean).